

## PRENTSA OHARRA

# **Euskal ETEek erabilgarri dute jadanik Hazinnova ekimen berria, berritzen has daitezen SPRI Taldearen eta Innobasque-n eskutik**

- **2,5 milioi euroekin hornitua, ekimen honek 2.400 enpresarenganaino iritsi nahi du eta 500 proiektu mobilizatu nahi ditu, lana antolatzeko modu berriei buruzkoak nahiz produktu eta zerbitzuak merkaturatzeko metodo berriei buruzkoak**
- **40 agentez (tokiko garapen agentziak, klusterrak, merkataritza ganberak eta enpresa-elkarteak) osatutako sare batek hiru lurraldeetako enpresak mobilizatuko ditu eta laguntza emango die prozesu osoan**
- **Helburua da Euskadiko eskualde guztietan kokatuta dauden eta berritzeko joerarik ez duten enpresa txikietara iristea, eta lehen esperientzia eskaintzea dohainik eta modu sinple eta azkar batean**

*2019ko uztailaren 12a.* 2.400 euskal ETEk erabilgarri dute dagoeneko Hazinnova zerbitzu berria. SPRI Taldeak eta Innobasque-Berrikuntzako Euskal Agentziak joan den martxoan abiarazitako ekimen horrek 500 proiektu inguru jarriko ditu martxan enpresa parte-hartzaileen berrikuntza- eta lehiakortasun-indizeak hobetzeko. Ekonomi Garapen eta Azpiegitura sailburu Arantxa Tapiak gaur aurkeztu du Hazinnova eta, hemendik aurrera, zerbitzuaren zabalkundea egingo da Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako eskualde guztietako enpresa txikien artean. Tapiarekin batera, ekitaldian izan dira baita ere Alex Arriola eta Leire Bilbao, SPRI Taldeko eta Innobasque-ko zuzendariak.

Hazinnova ekimenak 2,5 milioi euroko aurrekontua du eta duela gutxi argitaratutako Europako txosten batek berretsi du ekimen honen garrantzi estrategikoa. *Regional Innovation Scoreboard* 2019 txostenaren arabera, Euskadik bere berrikuntzako errendimendua hobetu du azken zortzi urteotan, baina hobekuntza hori ez da nahikoa izan Euskadik Berrikuntza-maila Handiko Eskualdeen multzoan jarrai

dezan, Europako batez bestekoa gehiago hazi delako proportzioan. Ahulezia handiena erakutsi dutenak ETE txikiak izan dira.

Euskal ETEek doako aholkulari espezializatu bat eskatu ahal izango dute spri.eus webgunearen bidez, eta aholkulari horren laguntzaz aukera izango dute lana antolatzeko modu berriak eta produktu nahiz zerbitzuak merkaturatzeko metodo berriak ezartzeko.

### **Hauxe da Hazinnova zerbitzuak eskaintzen duena:**

- Aholkularitza espezializatuko doako 50 ordu
- Hazinnova agente bat prozesu osoan zehar
- Karga administratibo oso txikia
- Emaizak hiru hilabetean

### **Hazinnova zerbitzuak laguntza emango die euskal ETEei hauetarako:**

- Enpresaren errentagarritasuna kontrolatzeko
- Prozesuen eraginkortasuna hobetzeko
- Entrega-gastuak edo -epeak murrizteko
- Antolakundeko langileak motibatuzeko
- Merkatuko kuota handitzeko
- Bezero-segmentu berrietara iristeko
- Marka eta diseinu industrialak babesteko

### **Proiektu motak eta jarduera sektoreak**

Enpresek gehienez bi mikro-proiektu abiaraz ditzakete urtebetean, arlo hauetako batean: ekonomia eta finantzen kudeaketa, produkzioa, logistika, barne-prozesuak, pertsonak, bezeroak eta merkatu berriak. Horrez gain, marka eta erregistroen arloko behar adina mikro-proiektu egin ahal izango dituzte.

Hazinnova ekimenak lehentasunezko jarduera-sektore batzuk finkatu ditu berrikuntza proiektuen onuradun izan daitezkeen ETEentzat. Industria sektorean lehentasunezko jarduerak izango dira manufaktura, erakusketa, energia-hornikuntza eta uren eta hondakinen kudeaketa; hirugarren sektorean, aldiz, lehentasunezkoak izango dira industriarekin zerikusia duten zerbitzuak, informazio teknologekin lotutako jarduerak, handizkako merkataritza, garraioa eta biltegiatzea, finantza jarduerak eta aseguruak.

## **Eusko Jaurlaritzaren konpromisoa**

Lehentasuna da Euskadiko enpresa berritzaileen kopurua handitzea eta berritzeko joerarik ez duten enpresek lehen esperientzia baliagarri eta praktikoa izan dezatela berrikuntzarekin. Eusko Jaurlaritzak, SPRI Taldearen bitartez, konpromisoa hartu du arlo horretako jarduerak finantzatzeko, berrikuntza ETE txikienetara iritsi dadin eurentzako laguntza espezifikoekin. Ildo beretik, Innobasque-k adierazi du handitu egin nahi duela ETEei ematen dien laguntza, berrikuntzaren bidean sartzen laguntzeko.

Testuinguru horretan, Arantxa Tapiak gaur goizean azaldu du zertan datzan SPRI Taldeak eta Innobasque-k bultzatutako Hazinnova ekimena. Prozesua joan den martxoan hasi zen, aholkulari talde bat kontratatuzko lizitazioarekin. Aholkulari horiek izango dira ETEei zerbitzu emango dietenak, proiektu berritzaile txikiak diseinatu eta ezar ditzaten hiru hilabeteko epean.

Horrekin batera, Innobasque-Berrikuntzako Euskal Agentziak 40 agentez osatutako sare bat sortu du Euskadiko eskualde guztietako enpresetara hurbiltzeko eta Hazinnova ekimenean parte hartzea erabakitzen duten guztiei proiektu osoan laguntzeko.

Enpresa parte-hartzaileek 50 aholkularitza-orduko zuzeneko zerbitzua erabili ahal izango dute eta konfiantzazko agente baten laguntza jasoko dute, zeinak, aholkularitza gain, tramite administratibo guztiak egingo baititu.

## **40 Hazinnova agente mobilizatuak**

Gaur gaurkoz, 40 agente mobilizatu dira guztira Hazinnova martxan jartzeko. Horien artean daude Araba eta Bizkaiko merkataritza ganberak; Energia, Aeronautika, Elikadura, Mugikortasun eta Logistika, Galdaragintza, Eraikuntza, Ingurumen eta IKT eta Teknologia sektoreetako klusterrak; ASLE lan sozietateen elkarteak; Metaleko Lantegien Bizkaiko Federakuntza; Durangaldeko enpresa-elkarteak; Azaro fundazioa; eta Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako hogeita bat Eskualdeko Garapen Agentzia. Horrela bermatzen da ekimena iritsiko dela hiru lurralde historikoetako eskualde bakoitzeko enpresa guztietara.

Agente horiek Hazinnova ekimenaren aurkezpenean egon dira gaur, non esan baitute prest daudela ekimen honen bidez Euskadi berritzaileago bat lortzea helburu duen erronkan laguntzeko. Ekimen hori -bere baitan biltzen dituen

sektore eta erakunde desberdinetako agenteak- aktiboki zabalduko da EAEko txoko guztietako enpresa txikietara iristeko.

Aurreikuspenen arabera, Hazinnova agenteen sarea gai da 2.400 enpresatara iristeko eta enpresa horietatik 500ek proiektuak garatuko dituzte ekimen berritzaile honen laguntzarekin. Hazinnova bereziki zuzentzen zaie 6-99 langile bitartean dituzten enpresei eta aurretik berrikuntza-jarduerarik egin ez dutenei.

Behin trebatuak izan ondoren SPRIk eta Innobasque-k ematen dituzten eta dagoeneko abian diren jardunaldietan, Hazinnova agenteak berehala hasiko dira ETE interesatuak atzematen eta laguntza emango diete behar duten proiektua edo konponbide berritzailea definitu eta ezartzeko, gutxi gorabehera hiru hilabeteko iraupena izango duen prozesu batean.

### **Eskualdeka aurkezteko egitaraua**

Ahalegin gehigarri bat eginaz ekimen hau ongi irits dadin enpresa txikiak dauzkaten Euskadiko eskualde guztietara –enpresa horiek batzuetan ikusezinak baitira berrikuntzaren arloan-, aurkezpenak egiteko egitarau bat antolatu da irailaren erdialdetik azaroaren bukaerara. Hazinnovaren arduradunak (Jaurlaritzakoak, SPRIkoak eta Innobasque-koak) Araba, Bizkaia eta Gipuzkoako eskualde guztietara joango dira eta, tokiko agenteekin batera, zerbitzuaren ezaugarriak eta irismena aurkezteko dizkiete zonalde bakoitzeko ETEei.

Dagoeneko 10 data daude finkatuta Hazinnova aurkezpenaren eskualdekako egutegian (eranskina).

#### **Informazio gehiago:**

#### **Berrikuntzaren euskal agentzia, INNOBASQUE**

Blanca Pardo  
T. 658 727 776 / [bpardo@innobasque.eus](mailto:bpardo@innobasque.eus)

Ana Larizgoitia  
T. 656 788 328 / [alarizgoitia@innobasque.eus](mailto:alarizgoitia@innobasque.eus)